

III. KAPITULUA

Aniztasunari eman beharreko hezkuntza-erantzunaren neurriak eta laguntzak

Laguntza intentsiboko programak

[...9. artikuluan, 10. puntuan]

10.– Zerbitzu integratuen programei dagokienez:

- a) Programa horietan parte hartzeko aukera intentsitate handiko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzat erreserbatuko da, betiere premiak honako hauei loturik badaude:
 - Desgaitasun larriak, osasun-premia iraunkorrak dituztenak eta ingurunearekin oso lotura urria dutenak, baldin oso laguntza espezializatu eta azpiegitura eta laguntza-produktu espezifikoak behar badituzte.
 - Jokabidearen nahasmendu larriak.
 - Eskola-ingurunera moldatzeko ezintasun larria.
 - Hezkuntza- edo osasun-esparruaren esku-hartze integrala behar duten gizarte-bazterketako arrisku larrian dauden ikasleak.
- b) Programa horietan parte hartzeak dekretu honen 3. artikuluan jasotako adingabearen interes gorenaren printzipioa errespetatuko du, eta gurasoen edo legezko ordezkarien parte-hartzea bermatuko da.
- c) Hezkuntza-, osasun- eta gizarte-esparruko profesionalekin lankidetzan garatuko dira.
- d) Zerbitzu integratuen programak ikastetxe espezifikoetan emango dira, eta hezkuntza-arloan eskumena duen sailak arau bidez ezartzen dituen ikastetxeetan.
- e) Programa horietan parte hartzea berrikusi egin daiteke, eta ez du denbora-mugarik izango.